

ZALDIBIA ERABERRITZEN, 2017

ZALDIBIARRREN BALORAZIOAK JASOTZEKO GALDETEGIA

Zaldibiako Udala "Zaldibia eraberritzen" partaidetza prozesua garatzen ari da, eraikin publikoen inguruan hausnartu, iritziak elkarbanatu eta erabakiak hartzeko. Iazko azarotik aurtengo otsailera garatu den faseak hainbat emaitza utzi ditu: ondorioen txostena eta aurtengo erronkak.

Bi dira 2017rako jarri diren erronka horiek:

1. Plaza eraberritzeko IDEIA-LEHIAKETA egitea. Plazan udal eraikin berria eta aterpea behar ditugula ondorioztatu zen eta aukera ezberdinak mahai gainean izateko, arkitektoentzat lehiaketa antolatzea erabaki zen.
2. Aurrekoari lotuta, egun Kultur Etxe zaharrea ematen diren zerbitzuak lekualdatzea, horretarako Udalak duen Artxanberriko lokala egokituz.

Udalak, bestalde, finantzaketa bideak jorratzeko konpromisoa hartu zuen. Aurtengo bi erronka hauei erantzuteko adina diru dagoela ziurtatuta, eta aurrera begira espektatibak onak izanik, beste partaidetza fase bati hasiera eman zaio.

Fase berri honen baitan, maiatzaren 26an, arratsaldeko 16:00etatik 20:30era bitartean, ATE IREKIAK ospatu genituen aurtengo erronka diren bi gunetan: HERRIKO PLAZAN eta ARTXANBERRIN. Gune bakoitzari dagozkion azalpenak jasotzeko aukera izan zen bertan, erakusketa moduan eta hitzez, eta zalantzak argitu zein iritzia emateko aukera ere izan zuten herritarrek.




Maiatzaren 26ko arratsaldean zehar 48 galdetegi bete eta jaso ziren. Jarraian galdetegi horien emaitzen laburpen bat aurkezten da:

UDAL ERAIKINA ERABERRITZEKO IDEIA LEHIAKETA

1etik 10era, baloratu lehiaketa urbanistikoan parte hartzeko aukera.


1etik 10era, baloratu lehiaketa urbanistikoko epaimahaian hiru herritarrek parte hartzeko aukera.



Aurrerantzean nola uste duzu jakinarazi behar zaiela herritarrei erakusketak jasotzen duen prozesuaren berri?

- Eskutitza bidez
- Bandoaren bidez
- Prentsaren bidez
- Besterik

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Eskutitza bidez	28	58,3
Bandoaren bidea	16	33,3
Prentsaren bidez	3	6,3
Besterik	1	2,1
Guztira	48	100,0




Irailaren bigarren astean, eta lehiaketa urbanistikoaren barruan, proiektuen hautatze lanetarako erakusketa bat antolatuko da. Erakusketa 5 egunez izango da ikusgai, goiz eta arratsaldez

Baloratu ezazu zer irizten diozun:

- Nahikoa da proposatzen den aukera
- Eguerdian ere zabalik egon beharko luke erakusketak
- Asteburuan ere aukera eman behar da
- Besterik


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Nahikoa da proposatzen den aukera	15	31,3
Eguerdian ere zabalik egon beharko luke erakusketak	3	6,3
Asteburuan ere aukera eman behar da	30	62,5
Guztira	48	100,0



LEHIAKETARAKO PLEGU TEKNIKOEI DAGOKIENEAN

Udal Eraikin berriari zehazten diren zerbitzuak egokiak iruditzen zaizkizu?

Udal Eraikinaren forma baldintzak egokiak iruditzen zaizkizu? Baloratu 1etik 10era.



Zerbait gehituko zenuke?

Ondorengo proposamenak jaso dira:

- Erabilera anitzeko aretoan, ezkontza zibilak eta hileta zibilak egiteko aukera aztertzea.
- Proposatutakoa ondo dagoen arren, eraikinaren "integrazio paisajistikoa" erreparatzea.
- Proposatutako baldintzak ongi daude baina ez da bota "guztia" behar eta ez da baloratzen dagoeneko dagoena.
- Zoruan ze material egongo da? Garestiena ez da beti onena.
- Arkupeak edo estalpearen garrantzia azpimarratzen duten 4 eskari jaso dira.
- Eraikina ez nuke oso garaia egingo.

Bestelako ekarpenak egin nahi baldin badituzu?

- "Baserri toke bat" emango nioke.
- Energia aurrezteko bitartekoak aintzat hartu behar dira.
- Duela urte batzuk egindako lana berreskuratzea pentsatu da?




KULTUR ETXE ZAHARREKO ZERBITZUAK ARTXANBERRIRA ERAMATEA

1etik 10era nola baloratzen duzu espazio kopurua?

1etik 10era nola baloratzen duzu erabileraren aniztasuna?

1etik 10era, egokia al da espazioaren antolaketa bertan egingo diren jardueretarako?

	Batez bestekoa
1etik 10era nola baloratzen duzu espazio kopurua?	8,0
1etik 10era nola baloratzen duzu erabileraren aniztasuna	8,0
1etik 10era, egokia al da espazioaren antolaketa bertan egingo diren jardueretarako?	7,7



Bestelako ekarpenak egin nahi baldin badituzu?

- Bi herritarrek gimnasio bat jartzeko aukera aztertzeko proposamena egin dute.
- "Duela bi legegintzaldi aurre-ikusten zen proiektua gelditu izana pozgarria da eta oraingoak dimentsio egokiagoa du."
- "Oraingoak duen indar-gunea plaza ondoan dagoela da, herriko bitzta plazan egiten baita. Aurrerantzean ere plazan programatu beharko da."
- "Espazioa eta jardueren egokitasunaren gakoa jardueren ordutegia nola antolatuko den da."
- Beste bi herritarrek, berriro ere, aterpe bat edukitzearen garrantzia azpimarratzen dute.

Herritarrek egin ekarpen edo hainbat proposamenei erantzuna:

Udal eraikinaren eraberritzeak dagoeneko aurre-ikusten du **estalpearen beharra**, eta honela jasotzen dute eraikinak izan beharreko ezaugarri espezifikoek atal honetan:

Estalpearen funtzioak hauek dira: eguneroko jolaserako, kirol-jolaserako eta egote hutserako; herriko ekitaldi arruntak; festak. *Ekimen oso puntualetarako (urtean behin edo gutxiagoko maiztasuna dutenak) dimentsio handiagoak behar badira momentuan erantzungo zaie behar horiei momenturako soluzioak emanaz.*

Beste horrenbeste eraikinaren **energia baldintzei dagokionean**, aurkeztuko den proiektu orok ondorengo baldintzak bete behar dituela jasotzen dute irizpideek:

- Europako zuzentarauak jarraituz, 2018rako eraikin publikoek energia kontsumo ia-zero izan behar dutenez, honi egokitutako eraikina egin beharko da.
- A motako kalifikazio energetikoa izan beharko du.
- Aire girotu gabeko aireztapen sistema izan beharko du.
- Eraikina egiteak sortzen duen aztarna ekologikoa kontuan izango da: materialak...

Azkenik, eta zenbait herritarrek **eraikinak ingurunearekin izan beharreko egokitasunaren** inguruan agertu iritziari dagokionean, ideia-lehiaketaren bigarren fasean erabiliko diren balorazio irizpideetan ondorengoa irakurtzen ahal da, besteak beste:

- Espazio publikoaren antolamenduaren proposamena: 20 puntu
- Egokitasun arkitektonikoa eta hiri-ingurunearekiko egokitzapena. Emandako irtenbidearen kalitatea eta xede duen errealitatean nola integratzen den. 45 puntu.